


# B

BARREN

## New York ezagutzeko beste modu bat

Imanol Santos,  
munduko maratoirik ezagunenean







**Negu honetan,  
ahaztu hotza.**

**ESKAITZA  
PAREGABEA**

## Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosatasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzailleekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:  
**3.300€**  
(BEZ kanpo).

+

**KREDIGAS**  
finantziazio berezia,  
instalazioa hilaka kuota erosaten  
finantzatzeko.

+

**570€**  
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da iCredigas. Gurekin tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, berruko instalazio egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 eradiadore (45 elementu) jartzeak. Promozio estandararen gaineko edozein aldaketak, aparteko aurrerikuntza izango du. Promozio honetaz balatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUnekin harikuntza eta egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina  
[www.naturgasenergia.com](http://www.naturgasenergia.com)



**naturgas  
energia**

## Ama, soinu teknikaria izan nahi dut

Emakumezko gutxiren pentsamenduetan aurkitzen da nahi hau. Errealitatean, gizonezkoak dira nagusi ikus-entzunezko teknikari lanpostuetan. Nik tekniko izan nahi nuen. Teknikaria naiz. Baina baita emakumezkoa ere.

Ustezko modernitatearen aroan sartuak garen honetan, badira, oraindik, emakumea eta teknikaria izatea bateraezinak direla uste dutenak. Esaldi matxistak ez dira atzean geratu. Entzuna dut, adibidez, "ez pentsa emakumea zarelako esaten dizudanik hau, baina ez dut uste bilatzen ari naizen perfilarekin bat egiten duzunik". Bapo geratuko zen gero!

Nik, aldiz, ez dut etsi. Telebistan egiten dut lan. Kamerarekin aurrera eta atzera, tripodea gora eta behera... ez dut esango hobeto egiten dudanik, baina bai gizonezko batek egingo lukeen moduan.

Orain, soinu teknikarien munduan murgildu naiz. Musikaren eremua beste ikuspegi batetik deskubritzen ari naiz. Eta hemen ere gizonezkoek *agintzen* dute.

Neketsua den lan batekin egin dut topo. Ez baita gauza makala bafleak altxatzen, kutzak mugitzen, zein mikrofonoak jarri eta kentzen aritzea. Baina horrelako lan bat egin behar denean, ez naiz gizonezko

batek nola egiten duen begira geratzen.

Pisu kontuak aparte, mundu ederra da soinuarena, musikarena. Sormenerako bidea zabaltzen jarraitu didana. Eta horretarako, kreatibitateko, ez al dugu ahalmen bera gizonezkoek zein emakumezkoek?

Arlo guztietan bezala, sektore honetan ere emakumearen papera aldatzen ari da. Zorionez, gero eta gehiago gara ikus-entzunezko munduan tekniko lanetan ari garenak.

Eire Vila



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**"Kreatibitateko ez al dugu ahalmen bera  
gizonezkoek zein emakumezkoek"**

## 2008KO KARAKATEKO IGOERA

**Astlehenean, sailkapenak eta erretratuak**



**Egin  
klik  
eta  
ikusiko  
duzu**

**[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)**





# IMANOL SANTOS

ANTXINTXIKARIA

**“Turismoan astebetean ikusten ez dena ikusi dut New Yorkeko maratoian”**

Imanol Santos Elgoibartarrak New Yorkeko maratoian hartu du parte azaroaren 2an, eta, ibilbidean lesionatu egin bazen ere, hiru ordu eta hamaika minutu behar izan ditu proba amaitzeko. 42 kilometroko lasterketan denetarik ikusi du: egin kontu, 107 musika banda zeuden ibilbidean zehar. Entrenamendu gogorra egin du aurreko lau hilabeteetan, eta hemendik lesionatuta joan arren, bere beldurra hasierako kilometroetan min hartzea zen: azkenean, 30. kilometro inguruan, minaren minez, oinez hasi behar izan zuen, baina oso gustura bueltatu da lortutako emaitzarekin. New Yorkeko maratoian helburua helmugara iristea baita, eta hori behintzat, lortu du.

## Zergatik aukeratu duzu New Yorkeko maratoin parte hartzea?

Munduko famatuena da eta esperientzia berriat hartu dut: ez da izan karrera azkar bat egiteko. Teorian giro gehien duena da. Marka ona egitera joan naiz, ondo entrenatuta eta azkar korrika egitera. Baina, gaizki irten da ere, inportantzia handiagoa zeukan esperientziak lasterketak berak baino.

## Munduko maratoin ezagunena da izena, merezita dauka?

Bai, eta politena ere bada. Giro aldetik, jende asko dago; eta proportzioan maila handia duen jende gutxi. Bost orduan egiten duen jende asko dago: Behobiaren antzekoa da, baina jende gehiagorekin. Eta *a lo bestia*. 42 kilometroko ibilbidea da eta 107 musika banda daude animatzen. Brooklynen adibidez beltz kolonia handiena dago, eta handik pasatzen zirenean taldeak ziren gorpela, rape-roak... eta denak onak. Talde onak, eta ondo egindako muntaia: ez zen kalean abesten hasi zirela, ondo antolatuta zegoen. Ibilbide guztian dago jendea, eta animoak ematen denbora guztian.

**Ibilbide guztian dago jendea, eta animoak ematen denbora guztian**

## Hara joaten direnek gozatzera joan behar dela diote, baina, maratoina egin bitartean, badago gozatzeko aukerarik?

Lehenengo 25 kilometroetan gozatu nuen, eta asko gainera. Ez zoaz guztia ematen, eta horregatik da posible. Baina, hortik aurrera, oso zaila da; eta azkeneko hamar kilometroetan aurrera begiratzearekin nahikoa dauka. Gertatzen da nik orkatilan min hartu nuela 30. kilometroan.

## Minez hasi zinen gainera...

Hasieratik mina sentitzen nuen, bai; hemendik joan nintzen lesionatuta. Eta 21. kilometro bueltan, aldapa bat igotzerakoan mina hartu nuen. Gero eta polikiago joan nintzen hankaren eboluzioa ikusteko, baina 30. kilometroan hautsi egin nuen, eta hortik aurrera oinez egin nuen ibilbidea. Denbora ahaztu eta gozatu egin nuen: ingurura begiratzen

nuen, eta jendea animatzen. Jendea laguntzeko prest agertzen zen.

## Beraz, lesionatzeko leku ona tokatu zaizu?

Donostian hartu izan banuen min, tristea izango zen, baina, New Yorken gertatu zait. Gainera, azkenean, hiru ordu eta hamaika minutuan egin nuen, eta ez da marka makala lesionatuta egoteko. Asmoa bi ordu eta 48 minutuan egitea bazen ere.

## Maratoi horrek 42 kilometro ditu, baina entrenamenduetan inoiz ez dituzu hainbeste egin...

Entrenamendu luzeena 32koa egin dut, eta ezin jakin azken kilometroetan zelan erreakzionatuko duen gorputzak. Bueno, badakizu: gaizki. Baina maratoin helburu bakarria iristea da: berdin da ibiltzen egiten baduzu azken zatia, baina, bukatu.

## Hiri osoa zeharkatzen du maratoinak...

Korrika joan ahala, New Yorkeko arraza bakoitza non bizi diren ikusten duzu: mexikarrak zarata gehien ateratzen dutenak dira, adibidez eta Brooklynen judu ortodoxoen tokira iritsitakoan, isiltasuna zegoen toki bakarria zen. Queensera igo eta beste maila bat ikusten da, Manhattanen turista mordoa, Bronxen beltz mordoa... Azkenean hiri osoa zeharkatzen da. Hasierako kilometroak konturatu gabe pasatzen dira. Horrelako hiri handi bat zelan dagoen banatuta ikusten duzu.

## Irteera ere ikusgarria izango da ba...

Hiru zatitan banatzen dira eta hamabigarren kilometroan batu. Zubian bertan goian bi irteera daude, eta behean beste bat. Ni azpikoan nengoan. Orduarekin arazoak eduki nituen, eta berandu iritsi nintzen, baina gutxi gorabehera tokatzen zitzaidan lekuan jarri ninduten. Hasi eta lehenengokin ipini nintzen, eta aurrekoa hutsik ikusten nuen. Baina hiru kaleak batzen ziren tokian derrepentean jende geihegi batu ginen.

## Zelako esperientzia izan da?

Joan nintzenean, banekien zer zegoen, baina gauza bat da jakitea eta beste bat bizi izatea. Hainbeste gauza ezberdin, horrenbeste estimulu heltzen zaizkizunez, ez dizu ematen denborarik ezertarako. Kalean, maratoina egin zenuela ikusi eta jendea eskua ematera etortzen zen. Polizia batek erren nengoela ikusi eta trafikoa moztu zuen. Edonori gomendatzen diot hara joatea, denbora kontuan eduki gabe.

Turismoan astebetean ikusten ez duzuna ikusten duzu maratoin.

## 40.000 lagunek hartu dute parte, zenbagerrena izan zara helmugara sartzen?

1.900 inguruan sartu nintzen. Amaitutakoan motxilak hartzeko gure kamioia helmugatik ordu erdira zegoen, beraz, ordu erdi egin behar izan nuen oinez poltsa hartzeko. Bazkalostean, nik proba amaitu eta handik ordu batzuetara, jendeak helmugara iristen jarraitzen zuen.

## Aurrez Donostiako maratoina zeneukan egin da. Antzekotasunik?

Ez dauka zerikusirik. New Yorkeko zirkuitua gogorragoa da, ez da laua. Lehenengo zubia adibidez, kilometro eta erdi gora eta beste kilometro eta erdi behera da. Gero, Central Park Behobia bezalakoa da: *rompe piernas*. Eta azken bost kilometroetan, eskailerak igotzea oso gogorra da: bi pertsona hil dira aurretan. Probabilitatea 75.000 lagunetatik bat hiltzea da: eta aurretan bi hil dira.

**Polizia batek erren nengoela ikusita, trafikoa moztu zuen**

## Jende askok hartzen du parte maratoin, organiazio aldetik zelan ikusi duzu?


Boluntarioek laguntzen dute: hiriko jende askok hartzen du parte, eta organiazioa bikaina da. Adibidez, kilometro eta erdiro abituallamentua dago eta jende pila bat egoten da ura emateko. Dortsala hartzera joan, eta segundu batean ematen dizute zurea. Horretarako ere jende pila bat egoten da.

## Maratoina egitera joan eta astebete egin duzu.

Denetarik bizi izan dut: Halloween, maratoina eta elekzioak. Iritsi ginen gauean, apartamentua Sohon geneukan eta justu Halloweeneko festak egiten diren zona da. Denbora piloa behar izan genuen heltzeko. Jende guztia mozturrotuta zegoen, baina ez dute zerikusirik beldurrezko mozturroekin: hemengo inauteriak bezalakoak dira.



# Iragana etorkizunari begira



## Hirigintza

### Plaza, kale eta auzoen urbanizazioa

**E**skola plaza, gerogo Agirre plaza (Plaza Txikia) elgoibartar apezpiku misiolariaren omenez 1894an egituratu zen, eskola berriak eraiki ondoren eta hango baratzak, lurrak eta tailerra Udalak erosi ondoren.

Estazio ingurua eta Santa Ana kalea eta Goikoerrotta ingurua urbanizatu egin zituzten bideak zabalduz, tren estazioak sortutako mugimenduari esker, 1887tik aurrera.

Ugalbide, Kalegoen edo Txankakuako zubia 1902aren hasieran zabaldu zuten.

San Frantzisko kalean hutsik zeuden orubeak betetzen joan ziren, eta Madala ingurua hobeto egituratu zen, Ermuaran erreka kanalizatuz, errezabal etxea eraikiz eta zubiaren ondoan eskola ere eraikiz.

Santa Klara kalea Sikutegiraino urbanizatu zuten, bertakoek eskatuta.

Madalatik San Pedro fabrikaraino espaloia eta argia jarri zituzten.

Altzola urbanizatu egin zuten, irudi atsegina eskaini nahi zitzaielako bainu hartzaileei. *Madril Txiki*-ko urek jende asko erakartzen zuten. Zubia ere zabaldu zuten eta hotel, hostel eta ostatuak ireki zituzten. Auzoa garbi izateko Udalak garbitzaile bat ere jarri zuen. Iturria konpondu egin zuten eta gurutzea ere lehen egon zen moduan jarri zuten. Bainuetxeko paseoko zuloak konpondu egin zituzten. Era berean, 1905ean Udalak auzoko alkateari frontoia konpontzeko baimena eman zion.

Mendaro bailarako Garagartza eta Trinitate auzoak ere urbanizatzeko galtzada-harrizko zola berria 1902an jarri zuten.

#### Herri kaskoa

Kaskoan urbanizatutako plazek kaleek, espaloiek eta ibaira jaisteko kaletxoek 1897ra arte galtzada-harriz eraikitako zoruak zituzten, eta horiek noizean behin konpontzeko beharra izaten zuten. Horrela egin zuten 1879aren hasieran, hiribilduaren kaleetan apurtutako galtzada-harriak berriz jarri. Gauza bera egin zuten Errebal kalean (San Frantzisko) hiru urte geroago, eta Ermuaranen (San Bartolome) 1885ean.

Baina 1897ean Navarra izeneko asfalto enpresak bolatokiko bidean (San Bartolome elizaren eskuinaldean eta Santa Ana kaleko 2. zenbakia zuen etxearen artean), proba egin ondoren,

handik aurrera zenbait tokitan asfaltozko zoladura jarri zuten.

San Bartolome eta San Frantzisko kaleak, errepede zatiak zirenez, asfaltatu egin zituzten 1901ean. Handik kendutako galtzada-harria beste kale, etxarte eta ibairako jaitsieretan jarri zuten. Udal obretako batzordearen us-tez, kaleak egoera txarrean zeuden. Beraz, estolderia eraikitzearekin batera, galtzada-harriak gune batzuetan altxatu izan zituztenez, obra horiek egiteko abagunea aprobetxatu zuten. Herri bideak edertu egingo zirela pentsatu zuten batzordeak.



Plaza Handia (Kalegoen). Pilota partidez gain, herri-ikuskizun gehienak hemen egiten ziren, ganadu-feriaren zati bat ere bane. (Udal-liburutegiko artxiboa)

Pello Arrietaren “*Elgoibar modernitatearen atarian*” liburutik hartua.

## Oinezkoen gunea

**M**artitzenean kendu zituzten Madalako kolunpioak. Inguru hori egokitze-ko lanen hasiera da. Izan ere, parkea eraberritzeko proiektua onartua dauka Udalak eta, era berean, Herriko Antzokiraino-ko tartearen oinezkoentzat egoki jarri nahi du.

Lan horren bidez oztopo arkitektonikoak kendu nahi dituzte eta parkea zabaldu. Lanaren aurrekontua 1.132.000 eurokoa da.

Hori dela eta, Pedro Muguruzako eta alde zaharreko bizilagunentzako eskutitza prestatu du Udalak, lanen berri

emanez eta eragozpenengatik pazientzia eske.

Izan ere, Madalako ez da erdiguneri eragingo dion lan bakarra: Santa Ana, Antonio Arrillaga eta San Inazio kaleak egokitze-ko lanak ere martitzenean bertan hasiko dira. Gune hori ere oinezkoentzako jarri nahi dute. 900.000 eurokoa izango da lan honen aurrekontua.

Herri-lan biek Jauriaritzaren dirulaguntza jasoko dute, Merkgune proiektuan daude-eta. Merkgune herriko merkataritza sustatzeko ekimena da. Bi inbertsiook ez zituzten 2008ko

Udal aurrekontuetan sartu, baina 2007ko aurrekontuaren likidazioaren soberakinarekin finantzatu dituzte.

### Olasoko errotonda

Hilabete honetan onartuko du Udal Plenoak Olasoko errotondaren proiektua. Tramitazioa espero bezala joanez gero, abendu edo urtarrian hasiko dira obrak.

Lan guztiak lau edo bost hilebetetaren buruan amaituta egotea espero du Hirigintza Sailak. Hala ere, baliteke zertxobait atzeratzea, ezusteko gorabeherak sarri izaten dira-eta.

## Madalako kolunpioak eta petrila kendu dituzte lanak hasteko



## Ermuaranbideko lanak azken txanpan

**E**rmuaranbide kaleko espaloia ia-ia amaituta dago. Egunotan espaloi guztia laga dute eginda eta langileak azken erremateak amaitzen ari dira. Ermuaranbide kalean oinezko mordera ibiltzen dira eta horietako asko Ermuaran-Sallobenterra pasean joaten dira. Orain arte, espaloirik gabeko tartearen arriskutsua izan da, autoak abiadura handian pasatzen direlako.

Espaloiak 230 metro luze ditu eta bi zabal. Bidean argi berriak jarri dituzte eta edateko ur sarea eta euri-urak bideratzeko azpiegiturak berriro egin dituzte.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

**Berten aurkako epaiketa: zirkua**

Kaixo elgoibartar:

Fernando Bert Arretxea elgoibartarra pasa den urriaren 10ean Madrilgo Entzutegi Nazionalean epaitu zuten. Fiskaltzak gure herrikidearentzat zortzi urteko kartzela zigorra eskatu arren, berak onartu behar zuen, epaiketa aurrera joan ahala, in-kulpaziorako froga egonkorrak aurkitzeko zailtasunak agerikoak zirela. Azkenik, Fernan libre geratu da auzi honetan.

Berten aurkako epaiketa hori espainiar estatuaren politika errepresiboaren, zirkuairen, adibide berri bat izan da. Bere errugabetasuna agerian utzi duena eta, oraingo honetan, sarritan gertatzen ez den bezala, absolutioarekin bukatu duena. Zeren argi baitugu Entzutegi Nazionala Euskal Herrian esku hartzen duen epaitegi berezia eta arrotza dela, epaiketa fartsa ikaragarri garestiak antolatzen dituena. Objektibotasunik eta neutraltasunik gabeko makinaria politiko estrategikoa, euskal militante independentistak zigortzeko egokitua.

Bestalde, iragan igandean, hilaren 9an, Mikel Ibañez preso politiko elgoibartarrak 54 urte egin zituenek, gure elkartasun osoa eta besarkada sentikorrena helarazi nahi dizkiogu, maite zaitugu. Ez baita ahaztu behar gaixorik larri egon arren, preso mantentzen dutela, beste 13 preso politiko bezala. Gogoratu behar da sekulako presoak jasaten ari dela Ertzantzaren partetik.

Bukatzeko, Amnistiaren Aldeko Mugimendutik deia egin nahi dizuegu elgoi-

bartar guztioi estatu espainola zein frantziarrak eman duten jauzi errepresiboaren aurrean mobilizatzen jarrai deza-zuen.

Gora Amnistiaren Aldeko Mugimendua.

**Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimendua**

**ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA**

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

**Barren**

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
 ☎ 943 74 41 12  
 📠 943 74 37 04  
 E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:







Angel Ugarteburu

Bakean ez izatekotan hobe dok inora ez joan. Baina inora ez bagara joaten geldi gaude eta

geldi dagoenak ez jok gauza ikusgarri asko ikusten eta, gainera, usteldu egiten dok, presan preso dagoen uraren antzera.

Gorrotiak, ezinikusiak hartu jok ostatu gure artean eta elkarren ondoan darraigu elkarrekiko itsu eta gor: ikusi nahi ez, entzun nahi ez... berbarik be ez elkarri. Kanean, pasoa, betiko irri faltua, maskara baten antzekoa, eta holaxe egunak joan eta egunak etorri, urteak joan eta urteak etorri. Bitartean ikusi ez, baina erraz sentitzen dogun horma sendoa eraiki joagu elkarren artean, aurriritziek eta topikoek sortu dutena. Kutxilo batekin ebateko moduko masa lodi eta likatsua somatzen zuan gure artean hasieran eta azkenerako mailu handiak beharko dituk hesiak botatzeko, gure gotorlekuetatik atera eta kale librean elkarrekin hitz egin, elkarri entzun, elkar aintzat hartu eta elkarrekin bizitza den bidaiaz gozatzeko, hormen barruan ez gaitzezen usteldu.

### “Ezinikusiak hartu jok ostatu gure artean”

Halako batean, sekula berbarik ere egin bako batekin solasaldi bat egiteko aukera izaten dok eta, zelako ezustekoa! Ez nuen pentsatuko hain jatorra zenik. Hurbil-hurbila dok, gainera. Zure penak beretzat hartzen dakiena. Mailurik barik, berez berez jausi dok horekiko zenuen horma, ezjakintasunak eta isolamenduak gero eta handiagoa bihurtu zuten horma madarikatua. Zu pekatari barik ni pekatari aitortzetik hasten garenean hautsiko dok presa eta urak bere bidea egin-go; bestela, bahituta jarraituko joagu. Oraintxe hasten dok bidaia, Andres!



Andres Alberdi

Serio arraio ekin diok gaurkoan, Angel. Esker-erak bukaeran, hormak apurtuta, esperantzaz beteriko bidaia baterako gonbita egiten didaan! Gustura asko joango nindukek, pentsamenduz bada ere, errailetatik desio eta amestu izan dudana balizko Caribe eguzkitsu idilikora. Baina ez zekiat barruak utziko lidakeen.

Poetak (gure Arestiren aitatasuna omen dik) zioz berak baduela infernurik ez dela frogatzen duen argudiorik. Izan ere, gizakia dena egiten omen duk, dena ohitzen –onerako zein txarrerako–, eta, ohitze horretan, infernura ere ohituko litzatekeela. Behin ohituz gero, infernua ez litzatekeela jada infernu, eta beraz, ez legokeela infernurik, infernu beste askorentzat. Ez zegok esan beharrik zeini zer tokatu zaion bizitzaren antzerkian. Halaxe izan duk historia guztian: batzuk goian beti (ditxosozko krisi apokaliptiko hau pasatuta ere, goikoak baietz berriz ere goian!), beste batzuk behean sekulorum santan (pateretan datozenak-eta baietz hiltzen jarraitu!).

### “Eta gehienok erdibidean, indiferentziaren ganduak itsutuak”

Eta gehienok, erdibidean, zehar-kalteak baino ez kalte, baina indiferentziaren ganduak itsutuak, indibidualismoaren banderan bilduak eta solidaritatearen oihartzunari entzungor. Bizitzako antzerkian, zoritxarrez, ikusle soil bihurtzen ari gaituk, eta filmean zer, beste aldera begiratzen diagu arriskua, injustizia, oinazea antzeman orduko.

Duintasunaren izenean, Angelo, bidaia baino lehen, on lukek justizia apur bat.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Osasun Zentroan urtebete baino gehiago itxaron behar da ginekologia azterketa egiteko.

## Zer iruditzen zaizu Osakidetzaren zerbitzua?



**Iñaki Aurrekoetxea**  
62 urte, jubilatua

Nik momentuz ez daukat kexarik. Egia esanda, ez naiz asko joaten medikuarengana, osasunez nahiko ondo nabil. Betiko azterketak egiten ditut, eta gero errezeta bila joaten naiz Osasun Zentrora. Larrialdiren bat baldin badaukat Mendarora joaten naiz zuzenean.



**M<sup>a</sup> Isabel Linero**  
34 urte, langabetua

Niri tokatu izan zait zain egotea, baina azkenaldian ez gehiegi. Badakit ginekologoarengana joateko itxaron zerrenda oso luzea dela, eta zerbitzua nahiko kaskarra da. Lanerako jende gehiago hartuko balute, egoera asko hobetuko litzatekeela uste dut.



**M<sup>a</sup> Asun Gabilondo**  
57 urte, botika laguntzailea

Zorionez osasunez ondo nabil azkenaldian, eta nik ez daukat kexarik. Ez zait tokatu zain egon behar izatea medikuarengana joateko, eta nire inguruan ere ez da horrelako kasurik egon. Hala ere, badakit alor batzutan itxaron zerrenda luzeak daudela, eta horiek konpontzea komeni da.



**Zuriñe Gurrutxaga**  
32 urte, dependienta

Pediatra zerbitzua, adibidez, ona da. Umea gaixorik badago, beti egiten dizute tartetxo bat, baina ginekologia zerbitzua desastre bat da. Ni haurdun nago, eta orain ondo atendituta nago, baina azterketa normalak egiteko denbora mordoa egon behar da zain.

### ESKERTZA

## JOSE ESTEVEZ GOMEZ



2008ko azaroaren 3an hil zen, 84urte zituela. Hileta elizkizunak Elgoibarko Bartolome deurenaren parrokiari izango dira, gaur, barixakua, azaroak 14, arratsaldeko 19:00etan.  
Joango zaretenoi eskerrak aldezturik.



### ESKERTZA

## PEDRO OSTOLAZA ESNAL



2008ko urriaren 13an hil zen, 59 urte zituela. Hileta elizkizunak domekan, azaroak 16, goizeko 11:30ean Elgoibarko San Bartolome parrokiari izango da. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.







**Herriko berdeguneetan txakur kaka asko dago:**

“Upaiz Zaharra kaleko berdeguneak txakur kakaz beteta egoten dira, eta hori onartezina da. Madalako parkean ere, umeak txakur kaka artean jolasten dute, eta zikin-zikin eginda amaitzen dute. Herria txakun eta garbi eduki behar dugu. Beste herri batzuetan, txakur kakak botatzeko poltsak daude herriko hainbat txokotan, baina Elgoibarren ez dago. Txakur jabeek erraztasunak ipini behar zaizkie kakak jasotzeko, eta ondoren, derrigortu. Jasotzen ez duenak, isuna ere merezi du. Zeozer egin beharra dago”.




**Artekaleko eskailera mekanikoak geldirik egoten dira askotan:**

“Joan zen astean, eguerdi guztietan geldirik aurkitu nituen Artekaleko eskailera mekanikoak. Ez dakit zergatik egoten diren geldirik, baina eguerdian jende asko ibiltzen da ingurune horretan, eta eskailerrak martxan egotea beharrezkoa da. Euria egiten zuen egun batean, gizon nagusi bat ikusi nuen eskaileretan gora, igo ezinda eta labaintzeko beldurrez. Eskertuko nuke horrelako gauzak gehiago zaintzea, eta eskailerrak martxan edukitzea uneoro”.

**Autopistako peajeen ilara handiak sortzen dira goizetan:**

“Lanera doan jende askok erabiltzen du goizero Elgoibar-ko autopistako peajea, eta sekulako ilarak sortzen dira. Askotan TAGa erabiltzeko sistema izorratuta egoten da, eta horrek autoen jarduna asko oztopatzen du. Azken batean, TAG sistema erabiltzaileei ordainketa errazteko jari-

zen martxan, eta Elgoibarren arazoak ematen ditu. Bestalde, Azkarate aldetik ere jende mordoia etortzen da, eta errotondan sekulako auto ilarak egoten dira goizero. Ez dakit zein izan daitekeen irtenbidea, baina nolabait egoera hori konpondu egin behar dela iruditzen zait, jendeak denbora asko galtzen du-eta lanera joateko”.





## klinika kortazar

Oftalmologia pediatrikoa

### Gidabaimenak eta armabaimenak

Errebal, 14 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Te. 943 700 700 / 943 203 835

Jose Angel Zabala

# MAHASTI



*Urdaitegi  
eta  
ardandegia*

*Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72*

**ZURE ALDE**



**ABOKATUAK**

Komunitateen, ugazabeen aholkularitza.  
Zuzenbide penala, zibila, laborala, familiarra.

**Itziaki Gil Azpilicueta**

Jausoro Plaza, 3 behea  
Tel.: 943 531 351

**Ignacio Vazquez Gonzalez**

e-mail: zurealde@telefonica.net  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

## Lau langile kaleratu dituzte Mupem enpresan krisi ekonomikoaren ondorioz

Auto karabanak eta mobilizazioak egingo dituzte egoera salatzeko

**K**risi ekonomikoa erreminta-makinaren alorra ere astintzen hasi da. Mupem enpresan lau langile kaleratu dituzte, eta LAB sindikatuko ordezkarien arabera, une gogorak bizi izaten ari dira: “Larrituta gaude, eta etorkizuna oso beltz ikusten dugu”, adierazi du LABek. Sindikatuaren arabera, lau langile horiek hogeit hamar eguneko indemnizazio minimoa jaso dute bakarrik.

Mupem enpresaren produkzioa erreminta-makinaren alorrean kokatzen da. Adituen esanetan, sektore hori oraindik ez dago krisi egoera larrian, baina zenbait enpresa hasi dira krisiaren eraginak antzematen. Mupem enpresan makinaria txiki eta ertaina egiten dute, eta alor horrek konpetentzia handia duela azaldu dute LABeko kideek: “Elgoibarko enpresa askok makina handiak egiten dituzte, eta horiek ondo da-



biltza, baina Mupemek konpetentzia handia dauka”.

### Mupem enpresaren gainbehera

Mupem enpresa 1990. urte inguruan joan zen Elgoibartik Itziarrera. Garai hartan 90 langile inguru zeuden enpresan, baina poliki-poliki, egoerak txarrrera egin du.

LABen arabera, enpresaren gestioa azken urteotan ez da ona izan, eta gaur

egun 36 langile geratzen dira enpresan. “Krisi egoera aprobetxatzen ari dira enpresariak langileak kaleratzeko”, esan du sindikatuak, eta beste enpresa batzuetan ere gauza bera gertatzen ari dela azaldu dute.

Sindikatuak deituta, mobilizazioak izango dira datozen egunetan. Besteak beste, hilaren 26an auto karabana egingo dute eta eskualdeko herrietan kontzentrazioak izango dira.

## Ezker Abertzalea planeamendu kontseilutik kanpo laga izana leporatu diote Einbiouko kideek Udalari



Elgoibarko Udalak Apartheid politikoa aplikatu duela kritikatu dute Einbiouko kideek. Joan zen barixakuan, hilak 7, kontzentrazioa eta protestaldia egin zuten Plaza Handian egoera hori salatzeko. Izan ere, Elgoibarko arau subsidiarioak eraberritzeko kontseilutik kanpo laga dituztela leporatu diote Alfredo Etxeberria alkateari. Herriko arau subsidiarioek etorkizuneko Elgoibar nolakoa izango den finkatuko dute. “Inportanteegiak dira alderdi politikoen eta enpresarien esku lagatzeko”, adierazi dute Elgoibarko ezker abertzaleko kideek. Bestalde, herri mugimenduetako ordezkariak ere ez dutela ikusi salatzeko dute, ez gazte, ez nagusi, ez kultur talde, kirol talde edo giza mugimenduen ordezkariak, eta euren esanetan, “horiek ere izango dute zer esanik, ezta?”.



## Protagonistak **IMH eta Danobat**



Zilarrezko Bikain euskararen ziurtagiri ofizialak jaso dituzte aste honetan IMHk eta Danobatek. Era-kundeetan euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa ebaluatu eta zertifikatzeko sistema da Bikain, Eusko Jaurlaritzak ematen duen ziurtagiri ofiziala. Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik jaso zuten saria, Bilboko Guggenheim museoan egin zen ekitaldian.

## Berbia **Agenda 21**

Tokiko Agenda 21eko prozesuak indartzeko Iraunkortasun Batzordeak sortzeagatik, sari bat eman diote Elgoibarri Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak eta Udalsarea 21eko kideek. Eskualdeko Deba, Eibar, Ermua, Mallabia eta Mutriku ere saritu dituzte.

## Irudia **Gipuzkoako gaixoen elkarkidetza**

Urtero bezala, Gipuzkoako gaixo eta gutxitu fisikoak elkartu ziren joan zen domekan, hilak 9, Elgoibarren. Eurentzako meza izan zuten lehendabizi Parrokian, eta ondoren bazkaria egin zuten Sigma jatetxean. Elgoibar, Azpeitia, Azkoitia, Zumaia, Zarautz, Orio, Getaria eta Zestoako ehun lagun inguru bildu ziren guztira.



## **Aldi baterako egonaldiak zaharren egoitzetan**

Abendua eta horrekin batera Gabonetako oporraldia gertu daudenez, Udaleko Ongizate Sailak jakinarazi du zabalik dagoela zaharren egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko Foru Aldundiak antolatzen duen programan izena emateko epea. Abenduko lehenengo hamabostaldirako edo hilabete osorako eskabideak egiteko epea azaroaren 21ean amaituko da, eta bigarren hamabostaldirako eskabideak azaroaren 28ra arte egin daitezke. Epez kanpo egiten diren eskabideak libre dauden plazen arabera beteko dira. Informazio gehiago Udaleko Ongizate sailean eskuratu daiteke.

## **1942koen kinto bazkaria**

Datorren azaroaren 22an bazkaria egingo dute 1942ko kintoek Sigma jatetxean. Hitzordua eguerdiko 14:30ean daukate. Interesatuak 45 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako 3035 0007 20 0071046631 kontu zenbakian, azaroaren 18a baino lehen.

## **Merkatu plazako zozketa**

Merkatu plazako dendariak 60 euroko bi txeke zozketatu dituzte hilabete honetan. Anjel Mari Ondarza eta Amaia Sierra izan dira sarituak. Erosketa txeketan jasoko dute saria eta merkatu plazako dendetan gastatu beharko dute.





## AMAIA ARANZAMENDI

**“Bushen agintaldiaren ostean,  
gauza asko egin behar ditu orain Obamak”**



**Amaia Aranzamendi elgoibartarra da, baina, Cincinnatin bizi da uztailetik. Estatu Batuetako hauteskundeak egunero izan dira albistegietako protagonista Euskal Herrian, eta han bizi izanda, zelan jarraitu duen jakin nahi izan dugu. Hasieran gogotsu bazegoen ere, azkenerako aspertuta amaitu duela dio elgoibartarrak; baina, gustura dago atera den emaitzarekin. Obamak, lan asko egin behar duela ere uste du.**

**EDURNE BURGAÑA**

**Zelan bizi izan dituzu hauteskundeak?**

Hasieran interes handiarekin. Baina azkeneko gehiegi izan da. Azkenengo hamabost egunetan krisiak eta bestelako berriek ez dute inolako oihartzunik eduki irrti eta teletibetan. Elekzio eguna gerturatu ahal, tentsioak ere gora egin zuen, eta errepublikarren kanpaina, botuak irabazi nahian, asko gogortu zen Obamaren kontrako atake eta sasikomentario askorekin. Bitartean, hemen esaten duten moduan, Obamak "Obama no drama" jarrerarekin erantzun die. Kanpaina luze eta neketsua izan da. Siniestezina da zenbat mitin ematen dituzten ikustea eta egunero zenbat milaka kilometro egiten dituzten ahalik eta estatu gehienetan egoteko egunean zehar.



## Barack Obama



### **ETXE ZURIRA IRITSI DEN LEHEN PRESIDENTE BELTZA**

□ Barack Hussein Obama Hawaii jaio zen 1961eko abuztuaren 4an. 47 urte ditu.

□ Ezkonduta dago eta bi alaba dauka.

□ Columbia Unibertsitateko eta Harvard Law School-eko tituluduna da. Chicagoko Unibertsitateko zuzenbide fakultatean zuzenbide konstituzionala irakatsi zuen 1992tik 2004ra bitartean.

□ 2007an Ameriketako Estatu Batuetako presidente izateko hautagaitzara aurkeztu zen, eta Hillary Clintonekin lehiatu zen, hauteskundeetan Alderdi Demokrataren hautagai izateko.

□ Azaroaren 4ko hauteskundeetan, Alderdi Errepublikarreko John McCain hautagaiaren aurka lehiatu, eta irabazi egin zuen.

□ Presidente-karguaren jabetza 2009ko urtarrilaren 20an hartuko du, eta Estatu Batuetako 44. presidentea izango da, eta Etxe Zurira iritsi den lehenengo presidente beltza, gainera.

□ Aldaketa izan da bere kanpainako lema eta promesa. Estatu batuarak itxaropentsu daude.

### **Obama aukeratuta, aldaketa etorriko dela us- te duzu?**

Hori da denok espero duguna. Eta hori da berak agindu duena hamaika bider bere kanpainan. Zer egin ahal duen beste gauza bat izango da. Atzeriko politikari dagokionez, erraza izango du Bushek baino akordio gehiago lortzea. Iraketik tropak etxera ekarriko ditu lehenago edo geroago, seguruenez luzaroan ez dute herrialderik inbadituko diru falta dela eta. Neuri Kiotoko protokoloa sinatu dezaten gustatuko litzaidake.

### **Hain garrantzitsua da presidentearen azal ko- lorea?**

Arrazaren inguruan asko aritu dira. Galdera asko egiten dituzte, Obama mulatoa ez balitz, hau da, beltza izango balitz, aukera berberak edudiko al zituen etxe zurira ailegatzeko?

Kanpotik funtsik gabeko galderak dirudite, baina eurek serio hartzen dituzten gaiak dira. Obama aukeratuta arrazismoak gora egingo duela ere badiote eta Ku Klux Klan modukoak ugaritu. Hala ere, baikor izateko arrazoirik ere badago. Obamak irabazi badu Estatu

**“Gehien  
harritzen nauena  
hiri erdialdea  
hutsik ikustea da”**

Batuetako jendeak bozkatu duelako izan da eta batez ere, beltz, latino eta gazteen botuengatik, eta gazteak Estatu Batuetako etorkizuna dira.

### **Hauteskudeek irau duen bitartean hemen ere egon zara, zelan bizi izan dituzu hautes- kundeak hemen? Ezberdin ikusten dira kan- poan?**

Egia da Euskal Herriko hauteskunde kanpainan desberdin ikusten dela. Etxera joan aurretik, urriko lehenengo egunetan, Estatu Batuetan ez zegoen batere garbi zeinek irabaziko zituen hauteskundeak. Horra ailegatu nintzenean, berriz, inork ez zuen duda izpirik ere. Egun batzuren buruan ni ere konbentzindu ninduten! Eskerrak azkenean horrela izan den!

### **Estatu Batuetan zer egoera dago Bushen agintaldiaren ostean? Obamak lan asko egin behar du?**

Bai, dudarik gabe. Krisi finantziero eta ekonomikoari aurre egin, munduko beste herrialde-

ekin erlazioak hobetu, galdutako prestigioa berreskuratu, gizarte segurantzaren minimo bat eskaini, hezkuntza maila hobetu eta merkatuak erregulatu, besteak beste. Gauza gehiegi zortzi urtetan denak egiteko.

### **Zenbat denbora daramazu Cincinnati?**

Pasa den uztailan etorri nintzen. Oraindik etorri berriztat hartzen dut nire burua. Asentatzen lan nahikoa izan dut. Hiria eta inguruneak ezagutu ditut. Orain, paper asuntu denak eginak ditudala, gehiago bidaiatzea nahiko nuke eta Estatu Batuak ahalik eta gehien eza-gutzea.

### **Zertara joan zinen?**

Lanera etorri naiz. Nik Zamudion dagoen enpresa batean egiten dut lan. Besteak beste, motore aeronautiko eta gas turbinak egiten ditugu. Cincinnati guretzako garrantzitsua den bezero eta sozio bat daukagu eta bertan dihardut, bezero honen instalazioetan nere enpresaren agente.

### **Zenbat denborarako?**

Bi urte eta erdirako etorri naiz. 2010eko Gabonetan Elgoibarren egongo naiz.

### **Ezberdintasunik Cincinnati eta Elgoibarren artean?**

Gehien harritzen nauena hiri erdialdea, zentroa, hutsik ikustea da. Ez dabil jenderik paseatzen eta ez dago merkatarizarik. Ofizinal daude eta lan orduak amaitzen direnean, hiria hustu egiten da. Ezin duzu buelta bat ematera joan eta pare bat errekadu egin. Jendeak bizitza suburbioetan egiten du eta erosketak egiteko zentro komertzialetara joaten dira. Eta, noski, kotxerik gabe ezin zara inora iritsi. Bestalde badago asko gustatzen zaidan gauza bat eta Elgoibarren nekez ikusten dena: barixaku eta zapatu gauetan giroa dagoen pub eta taberna guztietan kontzertuak zuzenean entzun eta ikusteko aukera. Batez ere rock-a, rhythm and blues-a, pop-a eta country-a entzuteko aukera dago.

### **Zer botatzen duzu faltan?**

Batez ere nire familia eta lagunak, klima, jantaria, euskara, hango parajeak eta giroa. Dena, ezta? Baina hala ere oso gustura nago. Niretzako hemen egotea esperientzia oso aberasgarria da.



## TURISMOAREN KALITATEA

# “Bezeroek begiratu egiten dute, harritu egiten dira, eta estimatu egiten dute kalitatearen Q-a edukitzea, bereizgarria baita”

Euskadin, 242 establezimenduk dute jada Turismo Kalitatearen Q-a, hau da, turismo-enpresen zerbitzu, instalazio eta kudeaketaren kalitatea egiaztatzen duena. Bai produktuaren etengabeko hobekuntza du, bezeroaren zerbitzurako betiere. Jesuskoaren nekazal turismoa helburu nagusia, berriz, etengabeko hobekuntza du, bezeroaren zerbitzurako betiere.

### Zein izan dira turismo-sektoreari dagozkion kalitate-sistema eta -programetako batzuk

**zuenganatzeko arrazoi nagusiak?**  
Arrazoi nagusia izan da gero eta enpresa gehiagok erabiltzen dutela, bezeroei kalitate hobea ematen laguntzen baitu.

**Zer abantaila ekarri dizkio zuretzako turismo-kalitatearen Q ziurtagiria izateak?**  
Oraindik ere

hasiberriak gara, duela gutxi eman baitigute ziurtagiria. Antolakuntzaren hobekuntza eta lanaren plangintza hobetu direla nabaritu dugu, batez ere. Prozesu luzea da, eta goiz da oraindik balorazioa egiteko. Bezeroek begiratu egiten dute, harritu egiten dira, eta estimatzen dute kalitatearen Q-a edukitzea, bereizgarri bat baita..

**Zer hobekuntza nabaritu dituzue**

**antolakuntzari, kudeaketari eta azpiegiturei dagokienez?**  
Eguneroko kudeaketan igarri ditugu hobekuntzak. Azpiegiturei dagokienez, berriz, ez dugu inongo aldaketarik sumatu.

**Bezeroen gogobetetasunari dagokionez, zer hobekuntza nabari dituzte?**

Q-a eskuratu aurretik ematen genizkien zerbitzu berberak ematen dizkiegu bezeroei. Inkestak uzten genizkien geletan. Kalitatearen Q-ak horixe du, hain justu ere, ataletako bat, bezeroaren iritzia jakitea alegia.

**Zure ustez,**

**lehiakorrakoa da zure enpresa turismoko Q-aren kalitate-prozesuari esker?**

Bai, batez ere egin edo planifikatu behar ditugun lanen antolakuntzari dagokionez. Orain, barne-antolakuntza askoz hobea dugula.

**Turismoko Q-aren kudeaketa-prozesuan ballabideetatik, zelan azpimarratuko zenuke garrantzizkoen edo onuragarrientzat?**

Eguneroko eginkizunen idatzizko kontrola izan da azpimarragarriena, lehen ez baikenuen horrelakorik egiten. Aldaketa horri esker,



Jon Oliden  
Arduraduna

urte-amaieran konparatu dezakegu, aurreko urteekin, eskaria igo den edo bezero gehiago etorri den.

**Gomendatuko zenieke kalitate-sistema batekin lan egitea?**

Geroko bezeroei begira hobeto antolatu nahi duena animatuko nuke horretara.

**Eusko Jaularitzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorrakoa izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:**

### JARDUNBIDE EGOKIAK:

Kalitatearekiko konpromesua eta sensibilizazioa, hautatutako norakoetan turismo arloko profesionalei zuzendutakoa.

### TURISMO KALITATEAREN Q-A:

Kalitate kudeaketaren sistemaren egiaztapena. Bezeroen iguripenen betekizunen bermea.

### EFQM BIKAITASUN EREDUA:

Erakundeei kalitatearekiko bikaintasuna aurrean jartzen dien programa.

**JARRI TURISMO-KALITATEAREN Q-A ZURE ESTABLEZIMENDUAN !**

94 607 75 86

94 404 74 70

[www.turismoa.euskadi.net](http://www.turismoa.euskadi.net)

[www.euskalit.net](http://www.euskalit.net)

**“Kalitatearen Q-ak horixe du, hain justu ere, ataletako bat, bezeroaren iritzia jakitea alegia”**

**BASQUE TOUR**

turismoaren  
euskal agentzia  
agenzia vasca  
de turismo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA  
ETA TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
COMERCIO Y TURISMO

**EUSKALIT**

Bikaintasunerako Euskal Fundazioa  
Fundación Vasca para la Excelencia



**Danbaka III. MUSIKA LEHIAKETA****Rap-rocka, 70eko hamarkadako doinuak, bakarlari bat eta rock iluna**

**D**anbaka musika lehiaketaren hirugarren kontzertua gaur, barixakua, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian 22:30ean izango da.

Gaurkoan, Debagoieneko eta Durangaldeko bina talde arituko dira agertokian. Bakarlari batek zabalduko du gaua, gitarra eta harmonikarekin bakarrik lagunduta: Los Viernes Al Ron izenpean Iñigo Irizar bergararra dago. Bakarlariari 70eko hamarkadako doinuek jarraituko diete, Arrasateko Bitter Honey talde berriaren eskutik. Horren ostean, baina, musika estiloa zeharo aldatuko da: Zornotzako Army-Armak iaz Berrizko musika lehiaketa irabazi eta rap-rock emanaldia egingo du. Horri 90eko hamarkadan jaio eta orain dela lau urte berpiztutako Brankan taldeak jarraituko dio.

**Los viernes al ron**

(Antzuola)

Iñigo Irizar bergararak urte asko darama etxean gitarra eta armonika jotzen eta abesten. Antzuolan bizi da eta etxean konposatzen eta musika egiten jarraitzen du. Bluesa, folk amerikarra eta beste lantzen ditu euskaraz, gitarrarekin eta armonikarekin lagunduta.

**Bitter Honey** (Arrasate)

Talde berria den arren musikariak ez dira hasiberriak. Aitorrek, Borjak, Enaitzek eta Mikelek osatzen dute taldea. 70eko hamarkadako doinuetan buru-belarri dabilta, eta tarteka, beste askoren artean, Flaming Grooviesen izpiritua ekartzen dute gogora.

**Army.Arma** (Zornotza)

Iaz Berrizko Aldapa Musika Lehiaketa irabazi zuten. Seikote honen eskaintza irmoa da: rocka, metala, funka eta rap-a batzen dituzte. Funk-rock oinarrietatik abiatuta, riff rockeroekin eta DJen scratchekin asko aberasten dute emaitza.

**Brankan** (Berriz-Markina)

2000n taldea bertan beherra laga zuten arren, orain dela lau urte Aitor Osa eta Igor Larrinagari Denis Alberdi bateria jotzailea batu zitzairen. Berriz eta Markina artean kokatutako talde honen, baina, koordinadaz zeharo aldatu du: rock iluna egiten dute, ez hain azkarra eta melodikoagoa.

**KONTZERTUA**

Gaur, barixakua. 22:30. Elgetako Espaloia. 5 euro (Gaztekutxa, 3 euro).

www.danbaka.com

**DANBAKA** ))))III. MUSIKA LEHIAKETA  
DEBABARRENA DEBAGOIENA DURANGALDEA

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA

HEDABIDE  
LAGUNTZAILEA

ANTOLATZAILEA



## Zirko Ttipiak 'Giriguai' ikuskizuna taularatuko du Herriko Antzokian gaur, barixakua

Ekitaldia Atxutxiamaikak antolatu du ume eta gurasoentzako

**A**txutxiamaikak heldu eta umeentzako ikuskizuna antolatu du gaurko (barixakua): Herriko Antzokian *Giriguai* izeneko lana eskainiko du Zirko Ttipia taldeak, 18:00etan.

Giriguai emozioz betetako ikuskizun koloretsua da. Malabareak, musika, dantza eta publikoaren parte hartzea ziurtatuta dago, beti ere umore handiz.

Zelenina, Pibo eta Pupilak mundu bitxiak eta harrigarriak sortzen dituzte. Espektakulua ondo egiteko ardua Zeleninari dagokio, Pibo adorea da eta Panfleta, borondatea. Hirurek errealitateari egokitzeko ezintasuna erakusten dute eta iskanbila dibertigarriak sortzen dituzte.

*Giriguai* publiko guztientzako ikuskizuna da.



### Umore bizia

Zirko Ttipia 1992an Nafarroako Malabaristen Elkartearen inguruan jaio zen, umore bizia eta hurbila egiteko asmoz.

Zirko bat martxan jarri eta haur eta gurasoentzako ikuskizunak prestatu zituzten. Urteak aurrera joan ahala, paila-zoek zirkoaren mugak gainditu dituzte.

## Arrain artean eman zuten gaua 40 umek



Urriaren 24tik 25era eta azaroaren 7tik 8ra Elgoibarko 40 hurrek arrainekin lo egin zuten, Atxutxiamaikak antolatuta. Izan ere, Donostiako aquariumean eman zuten gaua. Eskaintzaren arrakasta zela eta, bi txanda egin behar izan zituen Atxutxiamaikak.

Arrain artean lo egin ondoren, Donostian jolasten jardun zuten umeek. Eguraldia lagun izanda, Urgulleko gazteluko erakusketara ere joan ziren, eta hainbat jolas egin zituzten.

### Hurrengo barixakuan Santa Zezilia eguna ospatuko dute Musika Eskolan

Azaroaren 22an Santa Zezilia eguna dela-eta, zenbait ekitaldi antolatu ditu Inazio Bereziartua Musika eskolak. Ekitaldiak bezperan egingo dituzte, datorren barixakuan.

18:30ean musika hezkuntzako hasierako ikasleen kontzertua entzun ahal izango da Musika Eskolako auditorioan. Ordu bete geroago, kontzertua eta diploma banaketa izango da, leku berean.

### Elgoibarko Musika Bandaren Santa Zezilia kontzertu berezia

Elgoibarko Udal Musika Bandak Santa Zezilia kontzertu berezia eskainiko du azaroaren 23an (domeka) Herriko Antzokian, 12:30ean. Horren aurretik, baina, kalejiran irtengo dira bandako ki-deak, 10:15ean.



# Bi kontzertu eta dokumental bat eskainiko ditu Sotoko Hotsak ekimenak azaroan

Llorenç Barber musikariari buruzko filma azaroaren 27an emango dute

**M**usika berezia gerturatuko du Sinoosek antolatutako Sotoko Hotsak ekimenak jendartera. Izan ere, azaroaren 20 eta 21ean kontzertu bi eskainiko ditu Kultur Etxeko Sotoan eta eta azaroaren 27an film Herriko Antzokian. Ekitaldi guztiak 22:00etan hasiko dira eta hiru euroko sarrera kobratuko dute.

Lehenengo kontzertuan bi taldek jardungo dute azaroaren 20an: Don Jaime, el exotico ciudadano eta Ibonrg & Maite Arroitauregi. Don Jaime Elgoibarko arrika sendo eta zaratsua da, Elgoibarko bi lagunek osatutakoa.

Ibonrg & Maite Arroitauregi bikotea minimalismo eta inprobisazioaren uretan igerian dabil. Maite Arroitauregi (Eibar, 1977) cello-jotzailea, azken urteetan hainbat proiektutan murgilduta egon da (Anari, Lisabo, dantza, zinema...). Ibon Rodriguezek (Sestao, 1978) bandoneoia jotzen du proiektu honetan, baina Eten-en, Le Noise-n eta bakarka aritu izan da ([www.ibonrg.net](http://www.ibonrg.net)).

## Gora Japon

Azaroaren 21ean Bilboko bikote basiko baten kontzertua izango da: Gora Japon, Mirian (ahotsa eta perkusioak) eta



*Ezkerrean Gora Japon. Eskuman Llorenç Barber musikaria.*

Jonek (gitarra eta ahotsa) osatutakoa. Rock-a eta inprobisazioa lantzen dituzte. Lehen kontzertua Eugene Chadbournearekin eman zuten (MEM jaialdian, 2005). Hortik aurrera hainbat lekutan izan dira: besteak beste, Jazzaluz jaialdian (Luz Saint Sauvern, Frantzia. 2006-VII-8), Artelekun (Donostia, 2006), Zarata jazz tabernan (Santutxu, 2006), Musikadero lehiaketan (Zalla, 2006) edo Villa de Bilbao pop rock lehiaketan (Bilbo, 2007) ([www.myspace.com/gorajapon](http://www.myspace.com/gorajapon)).



Hilaren 27an, Sonar Ciudades dokumentala emango dute Herriko Antzokian, Llorenç Barber musikariari buruz, Xabier Iriondok eta Fernando Agirrek sortutakoa. Berako Ertz jaialdiaren aurreko eta bitarteko egunetan errodatu zen, Valentziako konposatzaileak bertako musikari batzuekin kontzertua eman zuenekoan. Dokumentala Madrilgo Escena Contemporanea jaialdian aurkeztuko dute informazioa: <http://es.youtube.com/watch?v=TgZF6KBiBcQ>.

## Ekialdeko dantza ikastaroan izena emateko epea hilaren 20ra arte luzatu du Gazteria Sailak



Elgoibarko Udaleko Gazteria Sailak ekialdeko dantza ikastaroa antolatu du, azaroaren 29 eta 30erako. Bertan izena emateko epea hilaren 20ra arte luzatu dute.

Bi egunotako dantza ikastaroa Olai-zaga Kiroldegian emango du Amancay Gaztañaga irakasleak, 10:00etatik 13:00etara. Izena emateko Gazte Informazio Gunera jo beharra dago (Kultur Etxean). Matrikulak 15 euroko prezioa du (12 gazte, ikasle edo langabetu txar-tekin).

## Janari osasuntsuari buruzko Hitzaldi-etzabaida antolatu du Haizea taldeak

Datorren barixakuan, hilaren 21ean, janari osasuntsuaren onurak aztertuko dira Kultur Etxean izango den hitzaldi-etzabaidan, Haizea emakume taldeak antolatuta. Bertan dieta barazkijalearen printzipioak azalduko dituzte. Izan ere, abenduaren 1etik 11ra sukaldaritza vegetariano ikastaroa emango dute. Hitzaldian parte hartuko dutenek vegetarianismoaren onurak defendituko dituzte. Haien iritziz, ingurumena-arentzat ere ona da.





# Bihar grabatuko dute Estatu Batuetako 'Superhumans' saioa Plaza Handian

Euria egiten badu, kiroldegian egingo dute ikuskizuna

**E**statu Batuetako *Superhumans* telebista saioko protagonista diren Pumphrey anaiak, Paul eta Craig indartsuak, Euskal Herriko kirolarien aurka lehiatuko dira bihar Plaza Handian. National Geographic telebista kateak bederatziguneko taldea bidaliko du dena grabatzeko. Bestalde, Elgoibarko Udalak lau ordutik gorako herri kirol jaialdi aparta antolatuko du.

Bi anaiak lehiari ikusi ahal izango ditugu bihar Elgoibarko Plaza Handian. Han, beraien indartsu fama benetakoa ote den erakutsi beharko dute, kameraren aurrean, buruz buru aritu beharko dute-eta gure herrialdeko Herri Kiroletako kirolari esanguratsuekin. Lehendabizikoa, Ernesto Ezpeleta Bihurri izango da, Mendaron bizi



den aizkolari eibartarra.

Honako hau izango da biharko egitaraua: 10:30etik 11:30era, Elgoibarko Haritz Euskal Dantzari taldeak ongietorria egingo die bi indartsuei, eta 11:00etatik 14:30era herri kirol erakusaldia egingo dute Plaza Handian.

## Xabier Loiola Euskadiko hiru txirloko txapelketan nagusi izan da

Euskadiko hiru txirlo txapelketaren azken jardunaldi erabakigarria jokatu zen joan den zapatuan (azarok 8) San Pedroko bolatokian. Saillapen nagusiko zortzigarren postuan ailegatu zen Xabier Loiola azken jardunaldira, Segundo Pagaegi (Iruzubietan) saillapeneko liderrak botatako bi txirloko alde ateratzen ziola. Hala eta guztiz, alde berdinu eta gaintzeko gai izan zen Xabier Loiola, Euskadiko txapel-dun berria. Javier Osoro elgoibartarrak ere ederki aprobetxatu zuen Pagaegiren egun txarra eta saillapen nagusiko bigarren postua eskuratu zuen.

## Bihar egingo dute Karakateko igoera, 10:00etan hasita

Besteetan baino ordubete lehenago hasiko dute aurten Karakateko igoera. Superhumans saiorako herri kirol jaialdia grabatu behar dutenez, 10:00etan hasita erabaki dute Morkaiko mendizale elkartearen arduradunek. Izen ematea doan da. Karakateko igoeran parte hartu nahi dutenek bertan agertzearekin nahikoa dute. Bestalde, ibilbidea ez da markatuta egongo eta partaide bakoitzak egokien deritzon bide edo bi-dezidorra hartu ahal izango du.



## EMAITZAK

### FUTBOLA

Muskiz **26** – Tecnifuelle Elgo. **24** (Sen. Nes.)  
Cometel Elgo. **12** – Kukullaga **28** (Jub.Nesk.)  
IMH Elgo. **30** – Kukullaga **25** (Kad.Nesk.)  
Alcorta Elgo. **33** – Urola **22** (Sen.Mut.)  
Pneumax Elgo. **30** – Irungo Aztiak **20** (Kad.Mut.)  
Bergara **22** – Ikus Elgo. **28** (Kad.Nesk.)  
Arrate **13** – Astigarraga Elgo. **13** (Inf.Nesk.)  
Lili Elgo. **9** – Aterpe Elgo. **12** (Inf.Nesk.)  
Bankoa Elgo. **36** – Arrate C **14** (Inf.Mut.)  
Pulpo B **18** – Txarriduna Elgo. **16** (Inf.Mut.)

### FUTBOLA

Santurtzi **0** – Elgoibar **2** (Haundi)  
Elgoibar **1** – Orioko **1** (Erre.)  
Elgoibar **6** – Eibartarrak **0** (Jub.)  
Eibar **3** – Elgoibar **0** (Kad.)  
Elgoibar **6** – Arrasate **0** (Inf.)  
Elgoibar **1** – Ordizia **4** (Inf.)  
Elgoibar **3** – Aloña Mendi **2** (Ale.)  
Arizmendi B **1** – Elgoibar **0** (Nesk.)

### ARETO FUTBOLA

Kenci Elg. **4** – Allerru **1** (Nazional B)  
Asador Azitain **6** – Elgoibar **2** (Jub.)

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, **16**  
09:00 Xagua – Bar Aratz (Sen.Mut.)

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, **15**  
12:30 Elgoibar – Ordizia (Kad.)  
16:30 Elgoibar – Amurrio (Haundi)  
Domeka, **16**  
16:30 Elgoibar – Aloña Mendi (Nesk.)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, **15**  
11:00 Txarriduna – Bankoa (Inf. mut.)  
16:00 Astigarraga – Aloña Mendi B (Inf. neska)  
17:30 Aterpe – Alaia (Inf. neska)  
19:00 Tecnifuelle – Basauri (Sen. neska)  
Domeka, **16**  
11:00 Ikus – Urnietako (Kad. neska)

### ESKU PILOTA (Ikastolan)

Barikua, **14**  
22:00 Lagunak – Eibar (Nag.)  
Ostean Lagunak – Ilunpe (Nag.)

## Idarraga sariak

1. Larrea: 27 puntu
2. Hodei Onaindia: 26 puntu
3. Tarragual: 20 puntu
4. Guinea: 19 puntu
5. Loren: 19 puntu
6. Kerman: 19 puntu

## LANA

### ESKAERA

• Pertsona lanerako prest, nagusiak zainduz edo etxe-ko lanak eginez. Esperientziarekin eta gomendioak.

☎ 686 521 598

• Adimeko pertsonak zaindu edo etxe-ko lanak egingo nituzke, arratsaldean.

☎ 943 743 251

• Emakumea lanerako prest, goizeko 10:30etik arratsaldeko 18:00etara. haur eta nagusien zainketa edo garbiketara.

☎ 680 808 125

• Emakumea lanerako prest, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, haur edo nagusiak zaintzen, garbiketa edo taberna batean.

☎ 699 813 826

• Neska, lanerako prest, esperientziarekin pinturan eta oholeztatzean.

☎ 658 164 787

• Neska gaztea, zerbitzari lanerako (esperientziarekin), garbiketerako edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ 617 056 828

• Neska, lanerako prest nagusiak edo haurrak zaintzen edo etxeak garbitzen.

☎ 629 615 302

• Umeak edo nagusiak zaintzeko prest. 16:00etatik aurrera.

☎ 639 240 038

• Neska gaztea, nagusiak edo umeak orduka zaintzeko prest, eta garbiketa lanak egiteko prest.

☎ 689 202 618

• Umea edo nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo arropak lixatzeko prest. Egun osoan zehar.

☎ 639 505 375

• Umeak edo nagusiak zaintzeko. edo garbiketa lanak egiteko eta arropa lixatzeko prest. Egun osoan.

☎ 686 234 612

• Neska, umeak edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ 636 053 115

• Mutila, lanerako prest. Esperientzia elektrizitatean, igeltseritzan eta pintura lanetan.

☎ 636 053 115

• Neska, lanerako prest gida-baimenarekin eta kotxe-arekin. ☎ 669 154 143

• Klase partikularrak emateko (lehen maila) neska eskaintzen da

☎ 608 992 601

• Neska gazte bat eskaintzen da garbiketa lanerako (atariak. etxeak...) edo etxeak garbitzeko.

☎ 696 770 480

• Emakumea, nagusiak zaintzeko prest edo garbiketarako egiteko. Gauzez.

☎ 699 0813 826

• Mutila, banatzaile lanak edo kamiolari lanerako prest. ☎ 634 491 408

• Neska, umeak zaintzeko prest. ☎ 659 320 774

• Neska, nagusiak eta umeak zaintzeko prest edo garbiketarako egiteko. Goizez edo arratsaldean.

☎ 680 250 527

• Neska, garbiketarako egiteko edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ 649 212 944

• Emakumea, nagusiak zaintzeko edo etxeetako eta tabernetarako garbiketarako egiteko prest.

☎ 638 338 816

• Emakumea, zerbitzari lanerako edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ 617 056 828

• Emakumea, lanerako prest, nagusiak zainduz esperientzia.

☎ 943 531 608

### ESKAITZA

• Sukaldari laguntzailea eta kamareroa behar dira.

☎ 943 743 196

## ETXEBIZITZA

### SALGAI

• Etxea salgai Elgoibarren, Pedro Muguruia etorbidean, 75 m<sup>2</sup>, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa, balkoiduna, bista onak, oso argitsua eta igogailuarekin. Berrizatzeko.

☎ 628 159 533

• 2 logelako etxea salgai Santa Klaran, altzariarekin. Orain dela urte gutxi berritua, 2 balkoi. Eguzkitsua, igogailuarekin eta berogailuarekin. 198.000 euro

☎ 653 735 849

### ALOKAIRUA

• Pisua alokairuan Errosario kalean, 2 logelarekin.

☎ 688 669 482

• Etxea alokatzen da Mendaron.

☎ 658 379 393

• Alokairuan pisua bilatzen dut Elgoibarren, 3 edo 2 logelarekin.

☎ 696 246 962

## LOKALAK

• Garajea saltzen da Elgoibarren (erdigunean), 23m<sup>2</sup> (bi kotxerentzako edukiera), eta bi solairurekin (zutik egoteko moduan).

☎ 637 946 954

## MOTORRA

• Chevrolet Tacuma, 3 urte ditu, gris-urdinxka, 32.000km. Prezio onean.

☎ 943 744 500 / 686 052 665

## BESTELAKOAK

• Etxetresna elektrikoak, etxe-ko altzariak, oheko arropak eta gortinak behar dira.

☎ 676 444 171

• Haritzez eginiko eskailera salgai. Bi zati konpentsatua. Altuera: 3m.

☎ 658 706 539

## ABISUAK

• Madala inguruan mugikor bat galdu da. Topatzen duenak mesedez deitu. Eskertuko dut.

☎ 686 234 612

## OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero *barren.iragarkilaburrak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## MODULOAK

Lana / Bestelakoak

**Astebete : 5 euro**

**2 aste : 8 euro**

**3 aste : 10 euro**

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

**Astebete : 10 euro**

**2 aste : 17 euro**

**3 aste : 25 euro**





• Zorionak, **Naiara**, Ezure bigarren urtebetetzean. Muxu handi bat gurasoen partez.



• Zorionak, **Lidia Iriartel** Orain zeu zara Elgoibarko biramonarik gazteena.



• Zorionak, gure pilotilloari, aita eta amaren partez.



• **Zorione**, azkenean zazpi urte bete dituzu! Zorionak etxeko guztien partez eta baita osaba Bitorri ere. Ondo pasa.



• Zorionak, **Ane**, zapatuan zazpi urte egingo dituzulako. Guraso, Nora eta familiakoen partez.



• Zorionak **Telmo**, datorren asteartean bost urte bete-ko dituzu eta!



• Zorionak, tio **Ibon!** Lorena, Maitane, Aitor eta Ele-naren partez muxu handi bat.



• Zorionak **Jose eta Milagros!** 1958ko azaroaren 15ean ezkondu, eta dagoeneko 50 urte elkarrekin. Zorionak familiakoen eta bereziki, Maddiren partez zuen urrezko ezteietan.

## OSPAKIZUNAK TXOKOLATE JANA



Altzolako Bildubi lokalean txokolate jana antolatu zuten auzoko bizilagunek, eskerrak eman nahi dizkiete bertara hurbildu ziren guztiei, gazte zein nagusiei, eta baita Zubia jatetxeari, txokolatea egiteagatik.

### OHARRA

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu BARRENe**ko** bulegora edo

[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

e-postara bidali.

Tel.: 943 744 112

## OKINDEGIA

16 domeka **IBARRENEA**

### FARMAZIAK

#### 24 ORDUZ

- 14 Garitaonandia
- 15 Etxeberria (Santa Ana)
- 16 Etxeberria (Santa Ana)
- 17 Fernandez
- 18 Yudego
- 19 Zabaleta
- 20 Etxeberria (Errosario)
- 21 Ibañez

#### Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 16 38

#### Fernandez

Herriko enparantza 4,  
Garagarza (MENDARO)  
Tel: 943 75 61 42

#### Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 13 84

### INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)



## kirola

### 15 zapatua

10:00 Karakateko igoera

Morkaiko Mendizale Elkartean antolatuta, Karakateko igoera izango da. Irteera Plaza Handian.

### 10:30 'Superhumans' saioa

National Geographic telebista katerako *Superhumans* saioa grabatuko dute Plaza Handian. Eguerdi aldera arte hainbat ekitaldi izango dira.

### 16 domeka

10:00 Mendi irteera

Ikastolako gurasoek antolatuta, Aitzorrotz (744 metro) mendira egingo dute irteera Ikastolako ikasle eta gurasoek. Irteera Ikastolatik.



## musika

### 20 eguena

18:30 Trikitilarien kalejira

Inazio Bereziartua Musika Eskolak antolatuta.

### 22:00 Sotoko hotsak

Sinuosek antolatuta, Don Jaime el exótico ciudadano eta Ibon RG & Maite Arroita-jauregik kontzertua eskainiko dute.

Kultur Etxeko sotoan.

### 21 barixakua

18:30 Santa Zeziliako kontzertua

Musika hizkuntzaren hasiera-ko ikasleen kontzertua. Ondoren, diploma banaketa. Musika Eskolako auditorioan.

### 22:00 Sotoko hotsak

Sinuosek antolatuta, Gora Japon taldeak kontzertua eskainiko dute. Kultur Etxeko sotoan.



## hitzaldak

### 21 barixakua

19:30 Elikadura

osasungarriaren onurak

Naiara Malave, Iñaki Arregi eta Jon Muninekin hitzaldia eta solasaldia Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Haizea.

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.



### GAZTELEKUKO EKINTZAK

#### BARIXAKUA 14

Sukalde txokoa: Mexikoko taloak 17:00

#### ZAPATUA 15

Bizikletan irteera 17:00

#### DOMEKA 16

Masaje tailerra 17:00

#### MARTITZENA 18

Eskulanak: Eva kartelak. 17:00

#### EGUAZTENA 19

Txoko pribatua: 17:00

#### EGUENA 20

Ordenagailuak: 17:00



### LUDOTEKAKO EKINTZAK

#### BARIXAKUA 14

Giriguai ikustera irteera 17:15

#### ASTELEHENA 17

Eskulanak 18:00

#### MARTITZENA 18

Sumendiak ikuskizuna ikustera irteera 16:30

#### EGUAZTENA 19

Sukaldaritza 18:00

#### EGUENA 20

Umeen eskubideen eguna 17:00



### «Asesinato justo»

14, barixakua: 22:15

15, zapatua: 19:00/22:15

16, domeka: 19:00

17, astelehena: 21:30

AEB, 2008. Zuzendaria: Jon Avnet.

Iraupena: 100 minutu. Aktoreak: Robert de Niro, Al Pacino.

30 urtez elkarrekin lanean aritu ostean, Turk eta Rooster detektibeak erretira-

tzekotan daude. Azken ikerketa egiteko eskatuko diete: proxeneta baten hilketa ikertu beharko dute. Saileko hiltzaile baten atzetik ariko dira Turk eta Rooter.



 **antzerkia**

**14 barixakua**

18:00 Zirko ttipia

Atxutxiamaikak antolatuta, Giriguai zirko ttipia ikuskizuna izango da Herriko Antzokian.

**18 martitzena**

17:00 Volcanes antzezlana

Mad Science taldeak aurkeztuta, LH 4, 5 eta 6. mailako haurrentzat. Udal Liburutegian.



**Gure gomendioa**

**Superhumans**

Bihar, zapatua, 10:30ean Plaza Handian (Euria bada, kiroldegian)

Craig eta Paul Pumphrey dira ikuskizun honetako protagonistak. National Geographic kateko superhumans saiorako grabatuko dute ikuskizuna. Herri kirolak eta bi ania indartsuen erakustaldia izango dira, besteak beste.



# Zerikasi

## IKASTAROAK

**Enpresa marketing kudeaketa**

Norentzat: Lanbiden alta emanda daudenetzako  
 Hizkuntza: Gazteleraz  
 Hasiera data: 2009-01-19  
 Non: Elgoibarren  
 Izenemate bukaera: Kontsultatu

**Engrasea**

Norentzat: Mantenimenduko langileentzat  
 Hizkuntza: Gazteleraz  
 Hasiera data: 2008-11-17/Bukaera data: 2008-11-24  
 Non: Elgoibarren  
 Izenemate bukaera: Azaroak 17

**Internet eta intranet**

Norentzat: Interesatuentzat  
 Hizkuntza: Gazteleraz  
 Hasiera data: 2008-11-24/Bukaera data: 2008-12-04  
 Non: Elgoibarren  
 Izenemate bukaera: Azaroak 24

**Web diseinua**

Norentzat: Web guneak diseinatu nahi dituztenentzat  
 Hizkuntza: Gazteleraz  
 Hasiera data: 2008-12-09/Bukaera data: 2008-12-18  
 Non: Elgoibarren  
 Izenemate bukaera: Abenduak 9

**Ekialdeko dantza (sbel dantza)**

Norentzat: Interesa dutenentzat  
 Hizkuntza: Euskaraz eta gazteleraz  
 Hasiera data: 2009-11-29  
 Non: Elgoibarren  
 Prezioa: 15 euro (Gazte Txartelarekin, 12 euro)

Informazio eta eskaintza zabalagoa:  
[www.zerikasi.com](http://www.zerikasi.com) edo 943 74 82 71

«El espíritu del bosque»

16, domeka: 16:30

«La desconocida» (Ongarri)

20, eguena: 21:30

«La desconocida» Italia, 2006. Iraupena: 118 minutu. Zuzendaria: Giuseppe Tomatore. Aktoreak: Kseniya Rappoport, Michel Placido, Claudia Gerini. Irena Ukrainatik Italiara joan zen bizitzera

garai batean. Iraganeko mamuekin eta oraindik bilaketekin bizi da. Gizon bortitzen biktima izan zen Irena, eta tratu txar ugari hartu zituen. Une horiek bere oroimenean daude eta ez dute uzten bakean.

## Gure berbak

### **Milloitik mundura Ume-denporako oihartzunak (Angel Ugarteburu)**

Pasau dan barixakuan solasaldi eder eta umoretsu bat izan gendun liburu berri baten argitalpena dala eta; egillia, Berriatuko bezañ Elgoibarko dogun Angel Ugarteburu irakasle erretiratu berrixa.

Pitxintxu liburudendara hurbildu giñanak ez giñan damutu, ez, hara agertu izanaz. Barre ugari egin gendun Angelen kontura; bueno, zehatzago esateko, Angelekin.

Haura zan umoria! Haura zan txikita-ko abenturak kontatzeko grazia! Bere etxeko euskeria ibili zaban, euskera gatz eta piperduna. Guria baiño "bizkaitarragua" da, baiña ez dogu batere urrutiko sentitzen (iñork ez zaban arazorik izan esandakuak bihar bezela aditzeko).

Liburua ere hala idatzitta dago: euskera naturalian, ahozko jardunian ondo zuztartuta dagan euskeran. Oso samurra da irakurtzeko, eta, esan bezela, umoretsua oso. Gerra osteko garai háretako euskaldunen bizipenen eta sentipenen berri jakiteko ere oso egokixa da liburua.

Juan Luis Goikoetxearen sarrera ere badakar, Angelen berri gehixago izan nahi dabanarentzat ezinbestekua.

Materixala seguru ez jatzula amaittu, eta segi holako liburuak idazten, Angell Hango eta hemengo euskaldunak eskertuko dizugu eta!

Jesus Mari Makazaga

## Erretratu zaharra

1968

Aste honetako erretratu zaharra Maribel Ansolak laga digu. Lerungo futbol zelai zaharrean aterata dago. Garai hartan, gazteen arteko txapelketak jokatzeko ziren Lerunen, eta partida horietako batean aterata dago argazkia. Ingurune hori asko aldatu da azken urteotan, eta lehen futbol zelaia zegoen lekuan, gaur egun enpresa mordo daude. Gogora ditzagun gaztetxo horien izenak:

**Goian, ezkerretik eskumara:** Iñaki Rivero, Miguel Ares, Carlos Ansola, Ramon Ansola, Vazquez, Ondartza.

**Behean:** Agustin Armendia, ezezaguna, Juaristi, Patxi Ezenarro, Pedro Jose Jauregi.





- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

**MEKANOSA**  
Errosario, 27  
Tel.: 943 74 02 84 Elgoibar



**URKIDI**  
AHOLKULARITZA



**Antonio Urkidi**  
**Josefina Fernandez**

Tel.: 943 74 18 91  
Faxa: 943 53 01 49  
Kalamua, 12



# abendutik aurrera



Elgoibar izena baino lehen, zer beste izen zuen gure herriak XIV. mendean?  
Villamayor de Markina  
Markina de Yuso  
San Bartolome de Olaso



Zer ospatuko du Elgoibarko Musika Bandak 2010ean?

75. urteurrena  
100. urteurrena  
125. urteurrena




Zelan esaten da apustua Elgoibarko euskarari?

Sesioa  
Trabesa  
Dema



Zein da Juan Mugertza krosean posturik onena lortu duen elgoibartarra?

Fermin Arrese  
Santi Maiztegi  
Agustin Garitagoitia



Zein da baserri gehien dituen Elgoibarko baserri-auzoa?

Alastia (San Migel)  
Sallobente  
Idotorbe (San Pedro)



Zenbat adarkada jaso zituen Mazzanti toretzaille elgoibartarrak 21 urtean?

Bat ere ez  
Sei  
Hamaika

*Elgoibar*  
**KOLORETAN**





# mantangorri<sub>rekin</sub>



**6 DVD**  
euskaraz

## Zinema etxean 3

azaroaren **15**etik aurrera  
larunbat eta asteazkenetan  
DVD bat

1. Heidi 2. Heidi hirian
2. Pippi galtzaluze
3. Asterix Britainian
4. Azti ikaslea
5. Txoritxoak
6. Zientzia fikzioa



**+ 4,90 €**

Babesleak:



HARPIDEDUNENTZAT,  
BILDUMA OSOA **24 €**  
ESKARIA EGITEKO:  
943 30 43 45

